



DANI BLANCO

Mikel Irizar

KOMUNIKAZIOAN ARITUA ◆

Euskara eta independentzia

EZTABAIDA BERRIAK ari dira loratzen gurean, aspaldi behar genituenak. Hogeitamar urte eta gero, hasi gara hitz egiten askatu beharreko korapiloez: subjektu politikoa eta lurraldetasuna, barne antolamendua eta lurralde historikoak, identitatea eta independentzia...

Azken esparru honetan sartzen da bete-betean euskararen eta independentziaren arteko harremana. Eta lehen unetik ari da plaza-ratzen exijentzia moduko bat euskaltzaleoi independentziaren alde konprometitu gaitezen, erabat segurua bailitzan independentziak –eta berak bakarrik– bermatuko diola etorkizuna euskarari.

Eta ez, ez da gauza segurua. Independentzia prozesu batzuk bai garatu dira bertako hizkuntzan edota bere mesedetan –errepublika baltikoak, Katalunia...– baina beste batzuk ez –Irlanda, Eskozia...–. Esango nuke bata edo bestea gertatzen dela hiztun komunitate bakoitzaren tamaina eta indarraren arabera, eta hori horrela bada gure komunitatea asko indartu beharko dugu balizko independentzia euskararen mesedetan izan dadin.

Bada beste kontu bat ere: independentzia irabazteko aski izan liteke hautesleen %51a lortzea, nahiz %49a aurka egon. Ordea hizkuntza bat normalizatzeke ez da aski %51 hori, gutxieneko baldintza da ulermen unibertsala, besteak beste. Eta gainera komeni da aur-

kakoak izatea ahalik eta gutxien.

Gauzak horrela, euskararen normalizazioak eskatzen du independentzia zaleek euskaraz egitea, baita unionistek ere. Hizkuntzaren biziberritzea ezin da mugatu bi esparruetako batera. Ikuspegi honetatik, euskaltzale banakoak izango du bere hautu politikoa, tartean independentziarena. Baina euskararen gizarte erakundeei ez dagokie hau-turik egitea.

Zilegi den moduan independentzia zaleek nahi badute hautesle euskaltzake ere gurdira igotzea hartu beharko dituzte konpromiso zehatzak hizkuntzaren gainean. Ezingo dute hizkuntzaren gaia alboratu geroko gerotan, iraganean mai-zegei gertatu izan den moduan; alderantziz, garbi azaldu beharko dute nola egingo dion mesede independentziak euskararen normalizazioari.

Adibide egokia da Urtzi Urrutikoetxea independentzia zalearen txio hau: “Eusk(al) estatuaren 1. lanetakoa, besteek analfabetismoaren aurkako kan-painekin lez, monolinguisismoaren aurkakoa egitea”. Hori litzateke modua euskaltzale bana-koak independentziaren alde jartzeko.

Bitartean, ez ditzagun euskara eta independentzia uztarrian lotu, ez eta elkarren kontra jarri. ■

Euskararen normalizazioak eskatzen du independentzia zaleek euskaraz egitea, baita unionistek ere



XDZ



Joanes Etxebarria

◆ KAZETARIA

Erosketak

NORMALEAN, zutabegilea ona dela diot egia borobilak plazaratu ohi dituelako. Ni ez naiz nahi bezain ona, beraz, gezurra kontatuko dut. Mauleko Carrefour saltegi aitzinean gertatu zen. Lagun bat, etxera autoz zihoalarik, ikuskizun baten erdira iritsi zen. Bide-bazterrean gizon bat hamaika ahalegin egiten ari zen zutitzeko lohi artetik. Bere ezintasuna hain zen age-rian zutitzeko laguntza behar zuela, begi-bistakoa zen. Hortik hamar bat metrora, saltegitiko aparkalekuan, erosketak autora sartzen ari zen jende franko. Lohian lerra eta lerra, burua lurrera jotzeko zorian, gure gizona hatsanturik mintzo zen laguntza eske, boza ahul.

Lagunak autoa gelditu, laguntza propo-satu, eta gizonak hala galdeturik medikura eramane zuen. Itxarongelan zeudela, medikuak arta noiz eman aiduru, haur batek bere amari galdetu zion zer deabru gertatzen zitzaion gizon horri herrenka ibiltzeko. “Sobera edan du”. Medikua atera zenean, lagunari hala erran zion: “Berriz ere ikusiko duk lurrean, eritasun bat badik”.

Jendea etxera sartu zen erosketekin, eta han gelditu zen gizona medikuare-kin. Ez bazitzaion laguna ondotik pasa, han zegokeen oraino zutitu nahian. Gerta-kariak gezurra izan behar zukeen. ■

